

Lankidetzaren Kontseilu Sektoriala – Ohiko saioa Consejo Sectorial de Cooperación – Sesión ordinaria

Deialdia egin duena	Donostiako Udala
Convoca	Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián
Data, tokia eta ordua	2020ko urriaren 1ean / 1 de octubre de 2020
Fecha, lugar y hora	Udalbatza aretoa (Udaletxea) / Salón de plenos (Ayuntamiento) 16:00etan / A las 16:00 horas

GAI ZERRENDA:

ORDEN DEL DÍA:

Aurkezpen erronda	1 Ronda de presentación
Aurreko bileraren akta onartzea, ontzat joz gero. (ikusi erantsitako artxiboetan aktaren zirriborroa: 2020-07-01)	2 Aprobación, si procede, del acta de la sesión anterior. (ver en los archivos adjuntos el borrador del acta de 01-07-2020)
Aurrekontuen lantaldean egindako lanaren berri ematea.	3 Información de los avances realizados en el grupo de trabajo de Presupuestos.
Udal Lankidetz plana: aurrekoari ekarpenak eta berria egiteko prozesua martxan jartzea.	4 Plan municipal: aportaciones al anterior y activación del proceso de elaboración del nuevo.
Politiken Koherentzia eta GIH Lantaldea nola berriro martxan jarri.	5 Cómo reactivar el grupo de trabajo de coherencia de políticas y ODS.
Dirulaguntza deialdia.	6 Convocatoria de subvenciones.
Eskaerak eta galderak.	7 Ruegos y preguntas.
Datozen ekitaldiei buruzko informazioa.	8 Información sobre próximas actividades.

BILERAN PARTE HARTU DUTE:
HAN ASISTIDO A LA SESIÓN:

<p>KONTSEILUKO LEHENDAKARITZA PRESIDENCIA DEL CONSEJO</p>	<p>PSE-EE - Berdintasuneko, Elkartasuneko eta Eskubide Zibiletako zinegotzi ordezkaria PSE-EE - Concejala delegada de Igualdad, Solidaridad y Derechos Civiles</p>
<p>TALDE POLITIKOEN ORDEZKARIAK REPRESENTANTES GRUPOS POLÍTICOS</p>	<ul style="list-style-type: none"> • EAJ-PNV • EH-BILDU • ELKARREKIN • PP
<p>ELKARTEAK, HERRITARRAK, GARRANTZI BEREZIA DUTEN GIZARTE TALDEAK ASOCIACIONES, CIUDADANO/AS, COLECTIVOS DE ESPECIAL RELEVANCIA SOCIAL</p>	<ul style="list-style-type: none"> • ADSIS • ALBOAN • BAKEA ETA ELKARTASUNA EUSKADI • BAKERAKO LANKIDETZA BATZARRA-ACPP • BRIGADAS INTERN. DE PAZ • CEAR-EUSKADI • ENRAIZA DERECHOS • FISC – COMPAÑIA DE MARIA • HAURRALDE FUNDAZIOA • INTERED • INTERMON-OXFAM • LANKIDETZARAKO INGENIARITZA (ICLI) • MEDICUS MUNDI • MUGARIK GABE • MUGARIK GABEKO EKONOMIALARIAK • MUGEN GAINETIK • MUNDUBAT • NAZIOARTEKO ELKARTASUNA – S.I. • PROYDE-PROEGA • SAHARAKO LAGUNEN ELKARTEA • SETEM • SODEPAZ • TAU FUNDAZIOA • UNICEF • UNRWA EUSKADI • EUSKADIKO GGKEEN KOORDINAKUNDEA
<p>ETORRI EZ DIRELAKO DESENKUSATU DIRA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • CALCUTA ONDOAN • ETIOPIA AUTOPIA TIKAL • PROCLADE YANAPAY

EXCUSARON SU ASISTENCIA	
-------------------------	--

UDAL TEKNIKARIAK PERSONAL TÉCNICO MUNICIPAL	<p>Kontseiluaren Idazkaritza. Lankidetz teknikaria Secretaría del Consejo. Técnica de Cooperación</p> <p>Hezkuntzaren eta Gizarte Sustapenaren Zerbitzuaren burua Jefe del Servicio de Educación y Promoción Social</p> <p>Lankidetz Ataleko burua Jefa del negociado de Cooperación</p>
PARTAIDETZAREN DATUAK DATOS DE PARTICIPACIÓN	<p>Lankidetzako Kontseilu sektorialeko 30 kide, jarraian adierazten direnez gain: udaleko 3 ordezkari tekniko (2 emakumezko eta gizonezko 1).</p> <ul style="list-style-type: none"> • Emakumezkoak / Mujeres = 18 • Gizonezkoak / Hombres = 15 <p>30 personas integrantes del Consejo Sectorial de Cooperación, además del personal técnico municipal: 3 personas (2 mujeres y 1 hombre).</p>
IDAZKARITZA: SECRETARÍA DEL CONSEJO:	<p>Lankidetz - Cooperación: Aiete Jauregia, Aiete pasealekua, 65 943481471 lankidetz@donostia.eus</p>

SAIOAREN BILAKAERA: DESARROLLO DE LA SESIÓN:

<p>Hasi baino lehen, idazkariak esan du aurrerantzean kontseiluetara telematikoki joateko aukera eskaintzen saiatuko direla. Bestalde, mesedez eskatu du abisatzeko Kontseilura joango den ala ez, edukiera ondo kalkulatu eta neurri egokiak hartu ahal izateko.</p>	<p>Antes de comenzar, la secretaria dice que en adelante se intentará ofrecer la posibilidad de asistir a los Consejos de forma telemática. Por otra parte, pide por favor que se avise si se va a asistir o no, para poder calcular bien el aforo y tomar las medidas oportunas.</p>
<p>1.- Aurkezpen erronda</p> <p>Aurkezpen txanda egin da, bileran daudenek elkar ezagutzeko.</p>	<p>1.- Ronda de presentación</p> <p>Se realiza una ronda para conocer a las personas asistentes a la reunión.</p>

<p>2.- Aurreko bileraren akta onartzea, ontzat jotzea.</p> <p>Aldaketarik gabe onartu da.</p>	<p>2.- Aprobación, si procede, del acta de la sesión anterior.</p> <p>Se aprueba sin cambios.</p>
<p>3.- Aurrekontuen lantaldean egindako lanaren berri ematea.</p> <p>Lantaldearen ordezkariak ondorioak eta proposamenak aurkeztu dituzte (ikus bidalitako dokumentu erantsia).</p> <p>Giza Eskubideen egoerak okerrera egin du azken hilabeteetan mundu osoan, eta pertsona kalteberak are ahulago daude. Taldeak lankidetzaren aldarrikatu du politika publiko gisa, aurrekontu bat ere izango duena. Donostia % 0,7tik urrun dago oraindik ere eta Lankidetzaren Euskal Legea urratzen jarraitzen du. Beti egon da % 0,36an eta, 2020an, % 0,42ra igo zen, hau da, ekarpen gutxien egiten duen euskal hiriburua da. Aurrekontuak egitean babestu behar da elkartasuna, ez hitzez bakarrik.</p> <p>Duela gutxi jakin da gerta daitekeela datorren urtean ez izatea uste zen bezainbesteko defizita, zorpetzeko gaitasunari esker. Beraz, gomendatzen dute 2021ean gutxienez 2020ko kopuru berei eustea, betiere aurrekontu bateratu osoari eusten bazaio; eta, datozen urteetan, ehunekotan kopurua igotzen joatea, % 0,7ra iritsi arte.</p> <p>Eskatu dute dokumentua Kontseiluan onartzeko, ondoren gobernu taldeari bidaltzeko. Inork ez du kontrakoa adierazi, eta, beraz, onartuta geratu da.</p>	<p>3.- Información de los avances realizados en el grupo de trabajo de Presupuestos.</p> <p>Los representantes del grupo de trabajo presentan sus conclusiones y propuestas concretas (ver el documento adjunto enviado)</p> <p>La situación de Derechos Humanos ha empeorado en los últimos meses en todo el mundo, y las personas más vulnerables lo son aún más. Desde el grupo, reivindican la cooperación como una política pública, que como tal ha de ir acompañada de un presupuesto. Donostia sigue lejos del 0,7%, incumpliendo la Ley vasca de cooperación. Siempre ha estado en el 0,36%, y en 2020 subió al 0,42%, lo que supone ser la capital vasca que menos aporta. La solidaridad se defiende a la hora de elaborar los presupuestos, no sólo con palabras.</p> <p>Muy recientemente ha habido noticias de que, gracias a la capacidad de endeudamiento, es posible que el año que viene no haya tanto déficit como se pensaba. Por tanto, recomiendan mantener en 2021 por lo menos las mismas cantidades que en 2020, siempre que se mantenga el presupuesto total consolidado. Y, en los próximos años, ir incrementando porcentualmente la cantidad hasta llegar al 0,7%.</p> <p>Piden que se apruebe el documento en el Consejo, para a continuación enviarlo al equipo de gobierno. Nadie indica lo contrario, por tanto queda aprobado.</p>

Eskertzen da, halaber, lankidetzako zinegotziak dirulaguntzen zenbatekoa defendatzea.

Erakundeetako batetik kexu dira beren proiektuak ez datozelako bat Udalaren dirulaguntzen deialdiarekin, eta, beren ustez, proposamen filosofiko eta ideologikoak lehenesten dituzte. Aurrekontuen aldarrikapenekin ados daude, eta kopuruak handitzen badira, ehunekoren bat azpiegitura proiektuetara bideratzeko eskatu dute.

Beste erakunde batek erantzun du eztabaida egokia dela Plan Zuzentzaile berriari begira.

Zinegotziak esan du ez dela aurreikusten aurrekontua handitzea datorren urterako. Hilabete honetan ikusiko da, Finantzen Euskal Kontseiluaren ostean, zein zorpetze maila baimenduko zaien udalei. Orain ezin da ezer esan. Oraingoan, % 20 gutxiago aurreikusten da, oro har.

GGKEen Koordinakundeko kide batek adierazi du ziurgabetasun handia egon dela dirulaguntzei dagokienez, eta azkenean lortu dela lankidetzan murrizketarik ez egitea. Baloratu dute Lankidetzako zinegotziak ildo horretan egindako lana. Beste batzuetan kritikatu den bezala, ondo egiten denean ere aitortu egin behar da. Galdetu du ea zer irizpide egon den arlo batzuetan besteetan baino gehiago murrizteko, eta etorkizunean zer irizpide hartuko diren kontuan.

Beste erakunde bat erabat ados dago. Pandemiatik eratorritako egoera ondorio larriak sortzen ari da, eta GIHetan bizitza erdigunean jartzeaz hitz egin da, eta are

Se agradece también la defensa de la cuantía de las subvenciones sin bajada presupuestaria por parte de la concejala de cooperación.

Desde una de las entidades se quejan de que sus proyectos no encajan en la convocatoria de subvenciones del Ayuntamiento, que a su juicio priman planteamientos de tipo filosófico e ideológico. Están de acuerdo con las reivindicaciones presupuestarias, y pide que si se van a ampliar las cantidades, algún porcentaje se destine a proyectos de infraestructuras.

Otra de las entidades responde que es un debate adecuado para mantener de cara al nuevo Plan Director.

La concejala dice que no se prevé un incremento de presupuesto para el año que viene. Este mes se verá, tras el Consejo Vasco de Finanzas, qué nivel de endeudamiento se va a permitir a los Ayuntamientos. Ahora mismo, no se puede decir nada. Por ahora, lo que se prevé es un 20% menos, en general.

Un miembro de la Coordinadora de ONGD afirma que ha habido mucha incertidumbre respecto a las subvenciones, y al final se ha conseguido que en cooperación no se recorte. Valoran el trabajo de la concejala de cooperación en ese sentido. Al igual que otras veces se ha criticado, hay que reconocer también cuando se hace bien. Pregunta qué criterios ha habido para recortar en unas áreas más que en otras, y qué criterios se tendrán en cuenta en el futuro.

Otra entidad se muestra totalmente de acuerdo. La situación derivada de la pandemia está teniendo graves consecuencias, y en los ODS se habla de

gehiago pertsona kalteberei dagokienez. Deigarria egin zaio euskal administrazio publikoek hondamendi honetarako ekintza humanitarioko aparteko lerrorik ireki ez izana.

Azkenik, kontseiluko beste kide batek ere taldearen proposamenaren alde dagoela adierazi du, datorren urteetan igoera portzentuala proposatuz: %0,5koa 2022an eta %0,7koa 2023an.

4.- Udal Lankidetz plana: aurrekoari ekarpenak eta berria egiteko prozesua martxan jartzea.

Abenduan, hurrengo Lankidetz Plan Zuzentzailea egiteko prozesuarekin hasiko da, XXK kolektiboarekin batera, aurreko Planaren ebaluazioan lagundu baitziguten. Lehenago, urrian edo azaroan, Politiken Koherentzia + GIH taldearen bilera bat egingo da, Planari ekarpenak egiteko. Aurrekontuen lantaldeak badu bere ekarpena, aurreko puntuan onartutako dokumentuan zehazten dena.

Plana egiteko prozesua abenduaren hasieran hasiko da, Udaleko talde tekniko eta politikoak lehen zirriborroa egingo baitu, XXKren laguntzarekin. Lehen zirriborro horretarako, kontuan hartuko dira lantaldeen ekarpenak. Gero, zirriborro hori 2 saiotan landuko da Kontseiluko erakundeekin, ekarpenak egiteko, eta hortik bigarren zirriborro bat aterako da, maila politikoan berrikusiko dena. Behin betiko plana 2021eko martxoko kontseiluan aurkeztuko da.

poner la vida en el centro, y más respecto a las personas más vulnerables. Le ha llamado la atención que ninguna administración pública vasca haya abierto ninguna línea extraordinaria de acción humanitaria para esta catástrofe.

Por último, otro integrante del consejo también se muestra de acuerdo en la propuesta del grupo, proponiendo un incremento porcentual para los próximos años: hasta el 0,5% en el 2022 y 0,7% en el 2023.

4.- Plan municipal: aportaciones al anterior y activación del proceso de elaboración del nuevo.

En diciembre se comenzará con el proceso de elaboración del siguiente Plan Director de Cooperación, con el acompañamiento de Colectiva XXK, que ya nos apoyaron en la evaluación del Plan anterior. Antes, en octubre o noviembre, se realizará una reunión del grupo de Coherencia de Políticas + ODS para hacer aportaciones al Plan. El grupo de trabajo de presupuestos ya tiene su aportación, la que se detalla en el documento aprobado en el punto anterior.

El proceso de elaboración del plan comenzará a principios de diciembre, con la elaboración de un primer borrador por parte del equipo técnico y político del Ayuntamiento, con la ayuda de XXK. Para ese primer borrador se tendrán ya en cuenta las aportaciones de los grupos de trabajo. Luego, ese borrador se trabajará en 2 sesiones con las entidades del Consejo, en la que se realizarán aportaciones, y de ahí saldrá un segundo borrador, que se revisará a nivel político. El Plan definitivo se presentará en el consejo de marzo de 2021.

5.- Politiken Koherentzia eta GIH Lantaldea nola berrito martxan jarri.

Aurreko puntuan adostu bezala, lantaldea urriaren amaierarako edo azaroaren hasierarako deituko da berrito, plan berrirako proposamenak lantzeko. Beste erakunderen batek talde horretan izena eman nahi badu, jakinarazi diezaiola lankidetz negoziatuari.

5.- Cómo reactivar el grupo de trabajo de coherencia de políticas y ODS.

Tal y como se ha acordado en el punto anterior, el grupo de trabajo volverá a convocarse para finales de octubre o comienzos de noviembre para tratar las propuestas para el nuevo plan. Si alguna entidad más quisiera apuntarse a este grupo, que se lo notifique al negociado de cooperación.

6.- Dirulaguntza deialdia

Aurrekontua mantendu egin da. Irailaren 22an GEHren dirulaguntzak onartu ziren. 21 aurkeztu ziren, eta 13k lortu zuten dirulaguntza. Soberakin txikia lankidetzako lerroa pasa zen. Horregatik, lankidetzako ildoak astebete beranduago onartu zen, irailaren 29an. 32 proiektutatik 16 onartu ziren.

Erakundeetako batek kalitate mailari buruz galdetu du, proiektu asko kanpoan geratu baitira, eta horrek aurrekontu egokirik ez izatearekin du zerikusia. Lankidetzako teknikariak erantzun du, zehazki, GEHn aurten zaila izan dela: dirulaguntzen deialdirako aurrekontua handitu bada ere, iaz baino proiektu gehiago aurkeztu dira, eta kanpoan proiektu onak geratu dira. Lankidetzako ildoari dagokionez, aurreko urtean baino 2 proiektu gehiagok jaso dute dirulaguntza.

6.- Convocatoria de subvenciones.

El presupuesto se ha mantenido. El 22 de septiembre se aprobaron las subvenciones de EPTS. De 21 que se presentaron, 13 consiguieron subvención. El pequeño remanente que sobró se pasó a la línea de cooperación. Por eso la línea de cooperación se aprobó una semana más tarde, el 29 de septiembre. De 32 proyectos se aprobaron 16.

Una de las entidades pregunta por el nivel de calidad, ya que muchos proyectos han quedado fuera, y eso tiene que ver con que no se dispone de un presupuesto adecuado. La técnica de cooperación responde que concretamente en EPTS este año ha sido complicado: aunque el presupuesto para la convocatoria de subvenciones haya aumentado, se han presentado más proyectos que el año pasado, y han quedado proyectos buenos fuera. En la línea de cooperación se han subvencionado 2 proyectos más que el año anterior.

7.- Eskerak eta galderak.

Batzorde Iraunkorrean Donostiatik kanpoko hainbat pertsona daudenez, telematikoki

7.- Ruegos y preguntas.

Dado que en la Comisión Permanente hay varias personas de fuera de Donostia, se

egitea proposatu da. Bestalde, hurrengo Kontseiluaren data aldatu behar da, bat baitator Udaleko Osoko Bilkura baten datarekin. Hurrengo Batzorde Iraunkorren data bat erabakiko da, eta deialdia bidaliko da.

propone hacerla de forma telemática. Por otro lado, hay que cambiar la fecha del próximo Consejo, ya que coincide en un día en que hay Pleno del Ayuntamiento. Se decidirá una fecha en la próxima Comisión Permanente, y se enviará la convocatoria.

7.- Datozen ekintzen berri ematea.

SEADeko lagunen elkarteak jakinarazi duenez, Saharari laguntzeko Euskal karabanak geldirik jarraitzen du Alacanten, mugak itxita jarraitzen baitu. Hurrengo karabanarekin zer egin pentsatzen ari dira. Bestalde, urtero urriaren 12a inguruan jai bat antolatzen dute, aurten ezin izango dena egin, baina urriaren 8an kanpamentuetako gazteei buruzko dokumental eta mahai inguru bat jarriko dute, Kripta aretoan (Parte Zaharra).

Horrez gain, gogorarazi dute Zero Pobrezia plataforma jarduerak antolatzen ari dela urriaren 17aren inguruan, pobrezia aurkako nazioarteko egunaren harira.

Beste gairik ez dagoenez, bilera 17:00etan amaitu da.

7.- Información sobre próximas actividades.

La Asociación de amigas y amigos de la RASD informa de que la Caravana Vasca de ayuda al Sáhara sigue parada en Alicante, ya que la frontera sigue cerrada. Se están planteando qué hacer con la Caravana siguiente. Por otra parte, todos los años organizan en torno al 12 de octubre una fiesta, que este año no se va a poder hacer, pero el 8 de octubre van a poner un documental y mesa redonda sobre los jóvenes en los campamentos, en la sala Kripta (Parte Vieja).

Se recuerda también que la plataforma Zero Pobrezia está organizando actividades en torno al 17 de octubre, día internacional contra la pobreza.

No habiendo más temas que tratar, finaliza la reunión a las 17:00.

